

PROIEKTUA: INMIGRANTEENTZAT ETA ETXEBAKOENTZAT “HOTELA” ETA JANTOKI SOZIALA

1) IDEIA

Kaixo, gu Irati Rivas, Maider Vazquez, Eider Redondo eta Lucia Patiño gara, eta irakasleak Startinnovarako proposatutako proiektua aurkeztuko dizuegu. Ideia honekin, etxerik gabeko pertsoneri, zailtasun ekonomikoak dituztenei, imigratzaileei... lagundu nahi diegu, gizarteak baztertu egiten baititu.

Gaur egun inmigrante eta etxebako asko daude gure gizartean zoritxarrez. Horregatik, haietzako hotel eta jantoki soziala sortzea beharrezkoa dela uste dugu. Bestalde badaude horrelako negozioak gaur egun baina hainbeste inmigrante eta etxebako daudenez, ez dira nahikoak eta horren ondorioz, haietako askok gauak kalean igaro behar dituzte. Beraz, gure proiektuaren helburua, pertsona hoiei aukera bat ematea eta bizileku bat ematea da. Argi dago ezin izango ditugula denak hartu baina gurekin dauden bitartean, adinez nagusiak direnei, lanbideren bat irakatsiko diegu gizartean sartu ahal izateko eta horrela gutxinaka-gutxinaka, jende gehiago hartu ahal izateko.

